Lege-gordailua behar duten argitalpenen definizioak

01.1 Liburua

Argitalpen ez seriatua, testu oso bat eta/edo ilustrazioak dituena liburuki batean edo liburuki kopuru mugatu batean, eta gutxienez ere 50 orrialde izan behar dituena. Salbuespenez liburutzat hartzen ahalko dira 50 orrialde baino gutxiagoko argitalpen batzuk; esaterako, haur eta gazteendako formatuak.

01.2 Bibliofiliako liburua

Erosle-multzo murriztu batendako kopuru mugatuan argitaratua, korrelatiboki zenbakitua eta kalitate formal handikoa.

Liburu artistikoa

Osorik edo hein batean argitaratu dena lan artistikoak erreproduzitzeko artisautzako metodoen bidez, estanpa originalak dituena (zuzenean edo eskuz egindako ilustrazioak), edo eskuz koadernatuak.

01.3 Testuliburua

Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoa, Batxillergokoa eta Lanbide Heziketakoa.

01.4 Oposizioko gaitegia

Hautapen prozedura batean ikasteko proposatzen den gai-multzoa da; prozedura horretan proba bat edo gehiago izaten dira, zeinetan lanpostu bat eskuratu nahi duten izangaiek beren gaitasuna erakusten baitute epaimahai batek epaitzen duela.

01.5 Dokumentu elektroniko bat erantsita duen liburua

Kategoria honetan sartzen dira honelako argitalpen guztiak: dokumentu elektroniko bat erantsita duen paperezko liburu batez osatuak. Dokumentu elektronikoa bada garrantzitsuena, halako argitalpena ez da hemen sartzen.

01.6 Liburuxka

Argitalpen bateratua, liburu baten parte izan gabe 4 orrialde baino gehiago eta 50 baino gutxiago dituena.

02. Orri inprimatu solte edo tolestua

Orri solte edo tolestua, 5 orrialde baino gutxiago dituena.

03.1 Argitalpen seriatua

Zenbaki- edo kronologia-ordenan ateratzen diren liburuki edo zenbakiak dituen argitalpena. Izenburu bateratua du eta ale-mugarik gabe jalgitzen da.

03.2 Aldizkaria

Aldizkako argitalpena, egunero ateratzen ez dena.

03.3 Egunkaria

Egunero edizio batean edo gehiagotan ateratzen den argitalpena, informazio orokorreko edukia duena.

03.4 Memoria edo urtekaria

Urtean behin argitaratzen dena.

04. Musikako partitura

Musika-alea, obra baten ahots- eta/edo instrumentu-zati guztiak orrialde berean gainjarrita dituena.

05.1 Mapa

Lur osoaren, Lurraren zati baten edo zeruko gorputz baten irudikapen lau, sinplifikatu eta konbentzionala, egiazko tamainarekiko proportzio baten arabera – hau da, eskala batean– egina.

05.2 Planoa

Lurraren kurbadura alde batera uzteko bezainbeste mugatuta dagoen lur azalera baten irudikapena, eskala uniforme batean egina.

06. Estanpa originala

Marrazki, pintura, argazki edo antzeko zerbaiten erreprodukzioa, paperera edo beste materia batera eramana torkuluaren edo prentsaren bidez, hura grabatuta dagoen metalezko edo zurezko xaflatik edo hura marraztuta dagoen harri litografikotik.

07. Editatutako argazkia

Printzipio fisikoetan eta erreakzio kimikoetan oinarritutako sistema bat erabiliz euskarri fotosentikor batean sortutako irudia.

08.1 Xafla

Obra grafiko baten kopia, prozedura mekaniko baten bidez lortutakoa.

08.2 Posta-txartela

Kartoi meheko edo beste material bateko pieza txikia, alde batean ilustrazioa duena, eta bestean espazio zuria, bertan idazteko.

08.3 Kromoa

Koloretako figura bat edo zenbait figura dituen estanpa, paper edo txartela, gehienetan tamaina txikikoa, haurrek jolasteko edo bildumak egiteko erabiltzen dutena.

08.4 Kartak

Karta bakoitza da kartoi mehe laukizuzen bat, gutxi gorabehera dezimetro bateko altuera eta sei eta zazpi zentimetro arteko zabalera duena. Marrazki uniforme bat du alde batean eta zenbait objektu ditu marraztuta beste aldean; kartak batetik bederatzira daude zenbakituta Espainiako karta-sortan, eta batetik hamarrera Frantziako karta-sortan; gainera, hiru figura daude karta-sortako lau sailetako bakoitzean.

08.5 Iragarki tankerako kartela eta publizitatekoa

Paperezko edo beste material bateko pieza bat da, inskripzio edo figurak dituena, eta erabiltzen dena iragarki bat paratzeko, merkataritzakoa ez den propaganda egiteko, abisu bat emateko eta abar.

09.1 Binilozko diskoa: LPa eta *single*ak

Xafla biribila, lehen arbelezkoa eta bakelitazkoa zena, eta gaur egun polibinilozkoa, zeinetan ildo batzuen bidez soinuak grabatzen baitira, gero disko-jogailu baten bidez erreproduzitzeko. LPek zenbait kanta dituzte, eta singleak, aldiz, bat.

09.2 Audio CDa

Prozedura optikoen bidez grabatutako audio-informazioa duen disko ez malgua, laser bidez irakurtzen dena.

09.3 Beste soinu-dokumentu bat

09.4 Inprimaki bat erantsia duen soinu-dokumentua

10.1 Bideo DVDa

DVDa (*Digital Versatile Disc* edo *Disko Bersatil Digitala* ere esaten zaio, baita *Digital Video Disc* edo *Bideo Disko Digitala* ere) filmen biltegiratze optikoko multimedia formatua da, bideo- eta audio-kalitate handikoa. Disko trinkoen antzekoa da neurri fisikoei dagokienez (8 edo 12 cm-ko diametroa), baina bestelako formatu batean dago kodetuta eta dentsitate askoz ere handiagoarekin.

10.2 Ikus-entzunezko beste dokumentu bat

10.3 Inprimaki bat erantsia duen ikus-entzunezko dokumentua

11. Mikroforma

Bi mota bereiziko ditugu: **mikrofilma** (film honetan dokumentu grafikoak erreproduzitzen dira tamaina asko txikituta, horrela oso erraza baita dokumentu horiek biltegiratu eta manipulatzea) eta **mikrofitxa** (pelikula-fitxa honetan liburu,

dokumentu edo gisako baten orrialdeen argazkiak jasotzen dira tamaina asko txikituta)

12.1 CD-ROMa

Disko ez malgu eta eramangarria, datuak biltegiratzeko erabiltzen dena. Biltegiratze hori optikoa da, laser teknologiaren bidezkoa.

12.2 DVD-ROMa

Aurreko multimedia formatu bera da, baina irakurtzeko bakarrik diren datuak biltegiratzen ditu (*Read Only Memory*: irakurtzeko bakarrik den memoria).

12.3 Aplikazio informatikoa

Erabilera berezi bat izateko prestaturiko programa, hala nola, nominak ordaintzeko, termino lexikoen bankua eratzeko eta abar.

12.4 Beste dokumentu elektroniko bat

12.5 Inprimaki bat erantsia duen dokumentu elektronikoa

13. Pelikula zinematografikoa

Zeluloidezko zinta, zinematografoaren pantailan edo beste gainazal egoki batean proiektatzen diren argazki-irudiak jasotzen dituena.

Lege-gordailua behar ez duten argitalpenak

- Administrazio publikoen dokumentuak, barnekoak edo administrazio-espedienteetan sartzen ahal direnak

- Instituzio eta erakundeek (enpresak ere hor sartuta) beren langileei zuzendutako dokumentuak, barneko gaiei buruzkoak

- Administrazio publikoetako kidego edo eskaletan, igoera- edo lekualdatze-lehiaketak egiteko diren argitalpenak

- Posta zigiluak

- Gertakari sozialetako inprimakiak, hala nola ezkontzetako eta bataioetako gonbidapenak, heriotza-eskelak, bisita-txartelak, nortasun-agiriak edo tituluak eta diplomak

- Bulegoetako inprimakiak, datu-orriak, ofizialak ere barne, galde-sortak eta bete gabeko inkestak

- Eskariaren arabera inprimatzen diren argitalpenak

- Prentsa-txostenak

- Merkataritzako publizitate-orriak

- Mota guztietako merkataritza-katalogoak

- Egutegiak eta agendak

- Hiru dimentsioko objektuak, nahiz eta dokumentu nagusi bati lagun egin

- Objektuen, etxetresna elektrikoen, makineriaren eta abarren jarraibideen eskuliburuak

- Sistema informatiko baten edozein produktu, pertsona fisiko eta juridikoen pribatutasunari eragiten dioten datuak dituena, eta datu pertsonalak babesteari buruzko araudian sartuta dauden guztiak

- Ikus-entzunezko komunikazioko zerbitzua ematen dutenek emandako ikus-entzunezko programak, banatzekoak direnean izan ezik

Jabetza intelektuala

Zer da jabetza intelektuala?

Egileek eta beste titular batzuek beraiek sortutako lan eta prestazioen gainean daukaten eskubide-multzoa da.
Jabetza Intelektualaren Erregistroak beren obrak babesteko bermeak ematen dizkie; izan ere, obren erabateko erabilera eta ustiapenerako eskubide esklusiboa ematen dizkie.

Lan literario, artistiko edo zientifiko originalaren egile orok bere lana Jabetza Intelektualaren Erregistroan erregistratzeko eska dezake.

Non eskatzen da?

Nafarroa

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuaren Jabetza Intelektualeko Erregistroa

Navarrería 39-beheko solairua
31001 Iruña
rpinavarra@navarra.es

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara (eskatu hitzordua **848 424787** telefonoan)

Madril

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren Jabetza Intelektualaren Erregistro Nagusia

Alfontso XII.a kalea 3 eta 5
28014 - Madril
91 589 89 35
91 589 88 12 (Erregistro-publikotasuna)
Faxa: 91 589 86 62

Beste identifikatzaile batzuk: ISBN, ISSN, ISMN

ISBN (International Standard Book Number)

Nazioarteko zenbaki bat da, liburu bakoitzari zenbaki-kodea ematen diona identifikatu ahal izateko. Edozein libururen identifikazioa koordinatzen eta normalizatzen laguntzen du, liburu hura aurkitzeko eta argitalpen-merkatuan errazago zirkulatzeko.

Non eskatzen da?

2015etik aitzina, ISBNren titulartasuna eta kudeaketa Espainiako Editoreen Gremioen Federazioari dagokio modu esklusiboan.

ISBNren Espainiako Agentzia
Cea Bermúdez kalea 44 – 2.a esk.
28003 Madril
agencia@agenciaisbn.es
902 105 389

ISSN (International Standard Serial Number)

Argitalpen Seriatuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua da argitalpen seriatuak (aldizkariak, egunkariak, buletinak, urtekariak, serie monografikoak...) identifikatzeko nazioarteko kodea. Zenbaki hori argitalpen seriatuek dute eta liburuen ISBNaren baliokidea da.

Non eskatzen da?

Espainian, zerbitzu hau Espainiako Liburutegi Nazionalean dago sartuta.

Liburutegi Nazionala. ISSNren Zentro Nazionala
Paseo de Recoletos 20
28071 Madril
91 580 77 28
91 580 78 43
Faxa: 915168016
info.issn@bne.es

ISMN (International Standard Music Number)

Nazioarteko zenbakia da, musika notatua duten argitalpenak modu unibokoan identifikatzen dituena. Horri esker, musika notatuaren argitalpenen eta dagozkien datu bibliografikoen eraketa eta tratamendua arrazionalizatzen da, argitaletxe, musika-merkataritza eta liburutegiei begira.

Zenbakizko kodeak 13 digitu ditu 5 elementutan egituratuta, eta horietako batzuk luzera aldakorrekoak dira. Aurretik ISMN siglak izanen ditu beti.

Non eskatzen da?

Espainian, zerbitzu hau ISMNren Espainiako Agentziak ematen du, zeina sartuta baitago Musika eta Dantzaren Dokumentazio-zentroan

Alfontso XII.a 3-5.
B eraikina. 1. solairua
28014 Madril
91 353 14 80
Faxa: 913 531 373
cdmyd@inaem.mecd.es